

# Izen arrunten proposamenak Euskal Herriko zenbait txori espezierentzat

*Larus dominicanus, Larus atricilla, Cairina moschata,  
Egretta gularis, Sula dactylatra, Calidris subruficollis, Actitis macularius,  
Turdus obscurus, Leiothrix lutea, Oxyura jamaicensis, Sternula antillarum*



**EUSKAL  
BATZORDE ORNITOLOGIKOA  
COMITÉ ORNITOLÓGICO  
DE EUSKADI**

Asier Sarasua Aranberri, Aitor Galarza, Azaitz Unanue, Maite Laso,  
Martin Rezola, Aitor Leiza, Xabier Saralegi

2022ko azaroan  
Euskal Batzorde Ornitologikoa

# *Larus dominicanus*

Hego Atlantikoan bizi den kaio espeziea. Europako kaio ilunaren (*Larus fuscus*) antzekoa da. Iluna eta neurritz ertain-handia. Euskal Herrian erabat ezohikoa da.

Izen zientifikoa ('*dominicanus*') bere kolore beltzarengatik datorkio, fraile domingotarren abitua gogorarazten omen duelako<sup>1</sup>.



## Taxonomia

- **Familia:** Laridae (104 sp.)
- **Generoa:** Larus (45 sp.)
- **Sinonimoa(k):** -

## Informazio osagarria:

- [https://eu.wikipedia.org/wiki/Larus\\_dominicanus](https://eu.wikipedia.org/wiki/Larus_dominicanus)
- <https://avibase.ca/E6536E4E>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

## Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

## Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Gaviota cocinera (ES), Goéland dominicain (FR), Gavià de Lichtenstein (CA), Kelp gull (EN), Dominikanermöwe (DE), Mugnaiaccio australe (IT).

Izen nagusia izan ez arren, ondorengoak ere erabili izan dira: gaviota dominicana (ES), gavià dominicà (CA), dominican gull (EN)... horiek ere izen zientifikotik tiraka sortutakoak, frantseseko eta alemanierako izen arruntean bezala.

## Proposamena

Euskaraz ez dugu aurkitu hegazti honendako izen arruntik. Inguruko hizkuntzetan ez dago batasun handiegirik eta hainbat bide ezberdin erabili dituzte kaio hau izendatzeko. Hala ere, zenbait hizkuntzatan izen zientifikotik tiraka sortu dute izen arrunta. Euskaraz ere horixe izan daiteke biderik errazena eta egokiena (batez ere, kontuan izanik, kaio espezie asko daudela eta oso antzekoak direla).

Katalanaren bidea jarraitzea izan daiteke beste aukera bat, espezie hau deskribatu zuen ikerlariaren izena ezarriz, baina irtenbide hori azkena da beti.

<sup>1</sup> [https://en.wikipedia.org/wiki/Kelp\\_gull#cite\\_note-4](https://en.wikipedia.org/wiki/Kelp_gull#cite_note-4)

Hiztegi batzuetan 'dominikano' forma aurkitu dugu erligioso-orden honetako kideentzat, baina Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan eta Euskaltermen 'domingotar' hobetsi da.

Neurri handikoa eta *Larus* generokoa izanik, izen generikoa garbi dago: 'kaio' izan behar da (eta ez 'antxeta' edo besterik).

**Proposamena: *Larus dominicanus*, kaio domingotar.**

# ***Cairina moschata***

Espezie exotikoa da. Ameriketara dauka jatorria eta hango etxalde eta etxeetan ere asko hazten da. Europan eta Euskal Herrian exotikoa eta inbaditzailea da eta gero eta ugariagoa, etxaldeetatik ihes egindako aleen ondorioz.



## **Taxonomia**

- **Familia:** Anatidae (168 sp.)
- **Generoa:** Cairina (1 sp.)
- **Sinonimoa(k):** -

## **Informazio osagarria:**

- [https://eu.wikipedia.org/wiki/Cairina\\_moschata](https://eu.wikipedia.org/wiki/Cairina_moschata)
- <https://avibase.ca/DF1E2A1D>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

## **Euskarazko izenak**

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#). Ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

## **Inguruko hizkuntzetako erreferentziak**

Pato criollo (ES), Canard musqué (FR), Ànec mut (CA), Muscovy Duck (EN), Moschusente (DE), Anatra muta (IT), Muskuseend (NL).

## **Proposamena**

Anatida hau bere generoko bakarra da. Horrek askatasun handiagoa emango digu izendatzeko orduan. Europako beste hizkuntzek hartutako bideak aztertuta, badirudi izen zientifikotik abiatzea dela aukera nagusia. Badira salbuespenak (gaztelania eta katalana, adibidez), baina oro har *moschata* espezifikatzailea dute abiapuntu ('musketaduna'). Gorago aipatu ditugun ingelesak, frantsesak, alemanierak eta nederlanderak ez ezik, bide berbera jarraitu dute hizkuntza eskandinaviar guztiek eta eslaviar askok.

Euskaraz baditugu dagoeneko antzeko bidea hartu duten zenbait espezie (klase eta orden ezberdinetan), besteak beste, orein musketaduna, sagu musketaduna eta idi musketaduna.

**Proposamena: *Cairina moschata*, ahate musketadun.**

## ***Egretta gularis***

Afrikako ardeidoa, tarteka agertzen da Europan. Euskal Herrian dugun koartzatxo txikiaren (*Egretta garzetta*) antzekoa (batzuentzat azpiespezieak dira), nahiz eta espezie honetako alerik gehienak ilunak diren (zuriak ere badaude).

Ale ilunen kasuan nahiko nabaria da eztarri zuria. Kostaldean bizi da, manglare eta estuarioetan.



### **Taxonomia**

- **Familia:** Ardeidae (68 sp.)
- **Generoa:** Egretta (13 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Egretta asha*, *Egretta schistacea*...

### **Informazio osagarria:**

- [https://eu.wikipedia.org/wiki/Egretta\\_gularis](https://eu.wikipedia.org/wiki/Egretta_gularis)
- <https://avibase.ca/DF32B1F9>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

### **Euskarazko izenak**

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honendako euskarazko izen arruntik.

### **Inguruko hizkuntzetako erreferentziak**

Garceta costera occidental (ES), Aigrette à gorge blanche (FR), Martinet dels sculls (CA), Western reef heron (EN), Garça-dos-recifes (PT), Küstenreiher (DE), Westelijke rifreiger (NL).

### **Proposamena**

*Egretta* generokoa izanik, izen generikoa garbi dago, 'koartzatxo'.

Espezifikatzaileari dagokionez, espeziearen itxura ez da egokiena espezie hau izendatzeko (ez kolorea, ez hankak, ez mokoak... ez dira bereizgarriak).

Beharbada horregatik, inguruko hizkuntza gehienetan bere bizitokiari egiten diote erreferentzia, hori ere ardeido gehienentzat antzekoa duen arren. Horrela aurkituko ditugu beste hizkuntzetan 'uharrietako', 'arrezifeetako' edo 'kostaldeko' moduko izendapenak. Lehenengoa, seguru asko, ez da egokiena, espezie hau ez delako bereziki arrezifeetan bizi. Bigarrenari dagokionez ('kostaldekoa') esango genuke generikoegia dela, ardeido gehienak ikus daitezkeelako kostaldean.

Hori guztiori ikusita, eta erabat asetzen gaituen aukera izan ez arren, badirudi inguruko hizkuntza gehienek bidetik ekin beharko geniola euskaraz. Aukera bat baino gehiago dugu gure esku, besteak beste, uharri-koartzatxo, uharrietako koartzatxo arrezifeetako koartzatxo, kostaldeko koartzatxo.

Espezifikotasun gehiago emango diolakoan, beste aukerak baztertu gabe, baina *uharri-koartzatxo* hobetsi dugu. Espezifikoagoa izateaz gain, hegazti izenen artean oso erabilia den aukera da hori, izen arrunta sortzeko orduan bizitokia erabili behar den kasuan, gehienetan izenaren aurretik eta gidoiarekin erabiltzen baita, hala nola, sasi-txoria, baso-txinboa, mendi-erregetxo, zingira-mirotza, ur-zozoa, ereinotz-usoa, eta abar eta abar.

**Proposamena: *Egretta gularis*, uharri-koartzatxo.**

**Beste aukera batzuk:** uharrietako koartzatxo, arrezifeetako koartzatxo, kostaldeko koartzatxo, harraldeko koartzatxo.

# ***Sula dactylatra***

Hego hemisferioan bizi den espeziea, ozeano tropikaletan, batez ere Pazifikoan. Euskal Herrian oso tarteka ikusi izan da.

Ale helduak zuriak dira, Europako zanga arruntak bezala, baina maskara edo mozorro iluna dute begien inguruan.



## **Taxonomia**

- **Familia:** Sulidae (10 sp.)
- **Generoa:** Sula (6 sp.)
- **Sinonimoa(k):**

## **Informazio osagarria:**

- [https://eu.wikipedia.org/wiki/Sula\\_dactylatra](https://eu.wikipedia.org/wiki/Sula_dactylatra)
- <https://avibase.ca/22D1B4A2>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

## **Euskarazko izenak**

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honendako euskarazko izen arruntik.

## **Inguruko hizkuntzetako erreferentziak**

Piquero enmascarado (ES), Fou masqué (FR), Mascarell emmascarat (CA), Masked booby (gannet) (EN), Maskentölpel (DE), Sula mascherata (IT), Masksula (SV), Maskergent (NL).

## **Proposamena**

Izen generikoaren inguruan ez dugu zalantzarik. Genero honetan 6 espezie bakarrik daude eta denetan erabili daiteke 'zanga' generikoa.

Espezifikatzaileari dagokionez, Europako hizkuntzak gainbegiratu ondoren, oso gutxitan aurkituko dugun batasuna dago izen arruntetan. Hegazti honek daukan mozorroan oinarritu dira Europako hizkuntza gehientsuenak izen arrunta sortzeko orduan. Euskaraz ere bide hori jarraitu beharko genuke, izen garbi eta adierazgarria delako eta gainontzeko hizkuntzekin bateratzen gaituelako.

Hala ere, zalantzak egon daitezke espezifikatzaile hori aukeratzeko orduan, euskarazko izen arruntan artean ez dugulako antzeko eredurik aurkitu Euskaltermen. Bestek beste, *maskaratu/maskaradun* eta *mozorrotu/mozorrodon* aukerak aztertu ditugu gure artean. Hiztegien arabera, mozorroek begiak estaltzen dituzte eta maskara zabalagoa da. Kasu honetan, hegazti honen itxura aztertuta, biak izan litezke baliagarri.

Aztertu ditugun 4 aukeren artean, "maskaradun" hobetsi dugu, baina jakinez gai honetan hizkuntzalarien aholkua ezinbestekoa dela.

**Proposamena: *Sula dactylatra*, zanga maskaradun.**



# ***Calidris subruficollis***

Zangaluze amerikarra, Ipar Ameriketako tundran kumatzen dena. Distantzia handiko migratzailea da eta neguan Argentina ingururaino jaisten da. Euskal Herrian tarteka-marteka besterik ez da ikusi, migrazioan bidea galdu eta Europaraino iritsi ondoren.



*Calidris* generoko espezie tipikoa da itxuraz. Moko labur samarra dauka eta bularralde laranja edo gorritzta (izen zientifikoak ere horixe esan nahi du, 'lepagorritzta').

## **Taxonomia**

- **Familia:** Scolopacidae (92 sp.)
- **Generoa:** Calidris (24 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Tryngites subruficollis*, *Ereunetes subruficollis*

## **Informazio osagarria:**

- [https://eu.wikipedia.org/wiki/Txirri\\_gorritzta](https://eu.wikipedia.org/wiki/Txirri_gorritzta)
- <https://avibase.ca/3A3C62BC>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

## **Euskarazko izenak**

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu: [Euskalterm](#) eta [Elhuyar hiztegia](#) eta ez dugu aurkitu hegazti honendako euskarazko izen arruntik. Hala ere, Wikipedian 'txirri gorritzta' aurkitu dugu (iturriak aipatu gabe).

## **Inguruko hizkuntzetako erreferentziak**

Correlimos canelo (ES), Bécasseau roussâtre (FR), Buff-breasted sandpiper (EN), Territ rogenic (CA), Pilrito-canela (PT). Alemanieraz eta Eskandinaviako hizkuntzetan 'larre-txirri' tankerako formak erabiltzen dira (Prärielöpare, Prærieløber, Grasläufer), bere bizitokiari erreferentzia eginez.

## **Proposamena**

Generikoan ez dago arazorik, *Calidris* generoko espezie guztiak 'txirri' izendatu direlako euskaraz (berezi samarra den 'borrokalaria' izan ezik). *Calidris* generoan 24 espezie dira eta gutxi gorabehera erdiek dute euskarazko izena, denak ere txirriak.

Espezifikatzaileari dagokionez, modu batean edo bestean, hizkuntza gehienetan bere kolore laranja edo gorritzta aipatzen da (baita izen zientifikoan ere halaxe da). Euskaraz ere horretxek beharko luke bidea.

Wikipediako 'txirri gorrizta' izan daiteke aukerarik errazena. Hala ere, ez dirudi bide luzeegia egin duen izena denik eta badu arazo txikiren bat. Izan ere, *Calidris* generoko espezie gehienak dira gorriztak edo laranja kolorekoak, urteko hilabete batzuetan eta gorputzeko atal batzuetan bederen.

Bestalde, talde honetan bada oso antzeko izen zientifikoa duen beste espezie amerikar bat, *Calidris ruficollis* ('txirri lepagorria'), eta beharbada adibide egokia da esku artean dugun *Calidris subruficollis* ere izendatzeko, 'lepagorrizta' alegia. Bide horretatik joko bagenu, izen zientifikotik eta ingelesezko izenetik hurbilago egongo ginateke. Izena ulertzeko, memorizatzeko eta zabaltzeko ere aukera hobea ematen du, ziurrenik.

**Proposamena: *Calidris subruficollis*, txirri lepagorrizta.**

**Beste aukera batzuk:** txirri gorrizta, larre-txirri.

# ***Actitis macularius***

Espezie amerikarra. Euskal Herrian ugaria den *Actitis hypoleucos* espeziearen seniderik hurbilena (genero honetan 2 espezie hauek bakarrik daude), gure lurraldean oso noizbehinka ikusi izan da.

Neurriz eta formaz oso antzekoak dira bi Actitisak, baina espezie amerikarrak, kumaldian, tanto edo orban deigarriak ditu gorputz osoa zehar, batez ere lepoan, bularraldean eta sabelaldean.

Izen zientifikoak (*macularius*) ere esanahi hori du, nolabait, orbanduna edo pikarta.



## **Taxonomia**

- **Familia:** Scolopacidae (92 sp.)
- **Generoa:** Actitis (2 sp.)
- **Sinonimoa(k):** -

## **Informazio osagarria:**

- [https://eu.wikipedia.org/wiki/Actitis\\_macularius](https://eu.wikipedia.org/wiki/Actitis_macularius)
- <https://avibase.ca/0D88C072>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

## **Euskarazko izenak**

Ondorengo baliabideetan ez dugu aurkitu euskarazko izen arruntik: [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#).

## **Inguruko hizkuntzetako erreferentziak**

Andarríos maculado (ES), Chevalier grivelé (FR), Spotted sandpiper (EN), Xivitona maculada (CA), Maçarico-maculado (PT), Piro-piro macchiato (IT), Plettet mudderklire (DK).

## **Proposamena**

Izen generikoa garbia da. *Actitis* generokoa izanik eta genero horretan 2 espezie bakarrik daudenez, *kuliska* da generikorik egokiena.

Espezifikatzaileari dagokionez, inguruko hizkuntzen ereduak begiratuta, gehienetan espezie honen orban edo tanto deigarriak aipatzen ditu izen arruntak (frantsesa da salbuespena).

Animalia orbandunak izendatzeko ondorengo aukerak aurkitu ditugu:

- **Pikart;** (Ipar.): salpicado, moteado, multicolor, pinto, jaspeado...
- **Pintarratu:** abigarrado, coloreado, jaspeado, salpicado
- **Pinto:** pinto (moteado con fondo blanco). Abereez mintzatuz, orban ilunak edo arreak dituena.
- **Orbandun:** manchado. Orban: larruazalean eta kidekoetan, beste kolore bateko zati txikia.
- **Tantodun:** ez dago hiztegian, baina bai tanto ('mota') > moteado
- **Nabar:** multicolor, abigarrado (de varios colores, especialmente si están mal combinados)

Kasu zehatz honetan, eta hegazti honek beste hizkuntza batzuetan (eta latinez) daukan izena kontuan izanik, orbandun espezifikatzailea hobetsi dugu.

**Proposamena: *Actitis macularius*, kuliska orbandun.**

## ***Larus atricilla***

Espezie amerikarra, batez ere Karibe inguruan bizi dena. Oportunista eta orojalea, nahiko ugaria da gizakiaren inguruan.

Neurri ertainekoa, buru beltza eta moko gorria ditu. Bere deiak barre-algara gogorarazten du.

Izen zientifikoak bere buztanari egiten dio erreferentzia, *atra*, "beltza" edo "gaiztoa" eta *cilla*, "buztana"<sup>2</sup>.

*Larus* generoan sailkatzen den arren, *Leucophaeus* generoan ere sartzten dute sailkapen batzuetan, Ameriketako beste 4 espezierekin batera (tartean Euskal Herrian noizbehinka ikusten den Franklin antxeta, *L. pipixcan*).

Europan badira kaio honen antz handia duten beste bi espezie: antxeta mokogorria (*C. ridibundus*) eta antxeta burubeltza (*I. melanocephalus*). Itxura aldetik bien artean dago *Larus atricilla*.



### **Taxonomia**

- **Familia:** Laridae (104 sp.)
- **Generoa:** Larus (45 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Leucophaeus atricilla*

### **Informazio osagarria:**

- [https://eu.wikipedia.org/wiki/Leucophaeus\\_atricilla](https://eu.wikipedia.org/wiki/Leucophaeus_atricilla)
- <https://avibase.ca/6CDC3C9C>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

### **Euskarazko izenak**

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu ([Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#)). Ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

### **Inguruko hizkuntzetako erreferentziak**

Gaviota reidora americana edo Gaviota guanaguanare (ES), Laughing Gull (EN), Mouette atricille (FR), Gavina capnegra americana (CA), Gaivota-alegre (PT), Gabbiano sghignazzante (IT), Lachmeeuw (NL), Aztekenmöwe (DE), Lattermåge (DK).

### **Proposamena**

<sup>2</sup> [https://en.wikipedia.org/wiki/Laughing\\_gull#Name](https://en.wikipedia.org/wiki/Laughing_gull#Name)

Neurriz ertaina izanik eta *Leucophaeus* generoan (ere) sailkatzen denez, izen generikoa 'antxeta' behar du txori honek (eta ez 'kaio').

Espezifikatzaileari dagokionez, hiru bide aztertu daitezke, gutxienez.

1. '**Antxeta alai**', '**antxeta irribera**', '**antxeta irritsu**'... Inguruko hizkuntza gehienek (beharbada anglosaxoiei jarraituz), hegazti honen kantua hartu dute abiapuntutzat: *laughing, reidora, sghignazzante, alegre, lach*... Arazoa: Europan bada irri egiten duen beste espezie bat, antxeta mokogorria (*Chroicocephalus ridibundus*; *Gaviota reidora* gaztelaniaz, *Mouette rieuse* frantsesez eta *Lachmöwe* alemanieraz).
2. '**Antxeta mokogorri amerikar**'. Gaztelaniak darabilen bidetik. Europako antxeta mokogorriaren (*C. ridibundus*) antza duelako, biak burubeltz, mokogorri eta irribarretsu.
3. '**Antxeta burubeltz amerikar**'. Katalanak darabilen bidetik. Europako antxeta burubeltzaren (*I. melanocephala*) antz handia duelako, biak burubeltz eta mokogorri.

Esango genuke lehenengo aukera dela Europa mailan zabalduena eta euskaraz ere arazo gutxien sortzen dituen. Laburragoa ere bada. Dena dela, aukera guztiek dituzte euren (des)abantailak.

**Proposamena: *Larus atricilla*, antxeta mokogorri amerikar.**

**Beste aukera batzuk:** antxeta irribera, antxeta alai, antxeta irritsu, antxeta burubeltz amerikar.

# ***Turdus obscurus***

Espezie asiarra, Euskal Herrian ezusteko migratzaile gisa inoiz ikusi dena. Asia ekialdean bizi diren beste 15 espezieren oso antzekoa, denak ere buru grisa eta sabelalde laranja daukatenak. Bekain zuria da espezie honen ezaugarri fisiko bereizgarriena.



## **Taxonomia**

- **Familia:** Turdidae (181 sp.)
- **Generoa:** Turdus (88 sp.)
- **Sinonimoa(k):**

## **Informazio osagarria:**

- [https://eu.wikipedia.org/wiki/Turdus\\_obscurus](https://eu.wikipedia.org/wiki/Turdus_obscurus)
- <https://avibase.ca/6E24CCD1>

## **Euskarazko izenak**

Ez dugu aurkitu euskarazko izen arruntik ondorengo datu-base eta baliabideetan: [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#).

## **Inguruko hizkuntzetako erreferentziak**

Zorzal rojigris (ES), Merle obscur (FR), Tord pitgrís (CA), Eyebrowed thrush (EN), Tordo oscuro (IT), Gråhalsad trast (Iepagrisa) (SV).

## **Proposamena**

Lehenengo zalantza generikoarekin daukagu. Zozoa ala birigarro da? Taxonomiari, itxurari eta beste hizkuntzei jarraituz, 'birigarro' izendatuko genuke (zalantza handiekin, esan bezala genero honetan 88 espezie daudelako eta ez delako erraza zehaztea zeintzuk diren zozo, zeintzuk birigarro eta zeintzuk garratarro).

Espezifikatzaileari dagokionez, izen zientifikoa zein espezie honen ezaugarri fisikoei begiratuta, zenbait aukera ditugu (inguruko hizkuntzetan bezala): 'ilun', 'gris' edo antzeko izenen bat erabiltzea da aukeretako bat; edo 'bekainzuri' izendatzea da beste aukera. *Turdus* generoa aztertuta, espezie ilun, gris eta gorrizka asko daude, baina 88 espezietatik 3 bakarrik dira bekainzuriak. Hortaz, ingelesaren bidea jarraituz, 'birigarro bekainzuri' hobetsiko genuke. Arazo bakarra ikusten diogu izen honi: birigarro txikia (*T. iliacus*) ere bekainzuria dela. Hala ere, birigarro txikia espezie arrunt eta ezaguna da Euskal Herrian eta 'birigarro txiki' izenak bide luzea egin du dagoeneko; hemen lantzen ari garena, aldiz, erabat ezohikoa. Ez dirudi nahasteko arrazoirik legokeenik.

**Proposamena: *Turdus obscurus*, zozo bekainzuri.**

**Beste aukera batzuk:** birigarro ilun, birigarro gris, birigarro bekainzuri.

## ***Leiothrix lutea***

Asian eta Afrikan oso-oso zabalduta dagoen txori familia bateko kidea da (152 sp. dira Leiothrichidae familian). Txori polita eta kantari ona denez, etxerako espezie moduan ugaritu zen garai batean.

Ihes egindako hegaztiak koloniak egin dituzte Europa hegoaldean eta inbaditzaile bihurtu da. Euskal Herrian dagoeneko habiagile ere bada.



### **Taxonomia**

- **Familia:** Leiothrichidae (152 sp.)
- **Generoa:** Leiothrix (3 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Sylvia lutea*

### **Informazio osagarria:**

- [https://eu.wikipedia.org/wiki/Leiothrix\\_lutea](https://eu.wikipedia.org/wiki/Leiothrix_lutea)
- <https://avibase.ca/E147E79E>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

### **Euskarazko izenak**

[Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#) begiratu ditugu eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

### **Inguruko hizkuntzetako erreferentziak**

Leiótrix piquirrojo (ES), Léiothrix jaune (FR), Red-billed L. (EN), Leiòtrix bec-roig (CA), Usignolo del Giappone (IT), Rouxinol-do-japão (PT), Rotschnabel-Sonnenvogel (DE).

### **Proposamena**

Hegazti honen taxonomia, itxura eta jatorria aztertuta, eta inguruko hizkuntzetan egin dituzten hautuak aztertuta, uste dugu egokiena izen zientifikoari eustea izan daitekeela eta espezie hau 'Leiotrix mokogorri' izendatzea. Talde bereko beste 2 espezieak izendatzeko orduan ere lagungarri izango litzateke izendapen hau.

Inguruko hizkuntza latindarretan 'Japoniako urretxindor' bezalakoak erabiltzen dira, baina euskaraz, behintzat, izen hori nahasgarria iruditzen zaigu eta inolako oinarririk gabea. Gaztelaniaz ere izena aldatu diote berriki eta orain 'leiotrix piquirrojo' da.

**Proposamena: *Leiothrix lutea*, leiotrix mokogorri.**



## *Oxyura jamaicensis*

Espezie amerikarra jatorriz, gizakiak Europara ekarria eta inbaditzaile bilakatua. Herrialde batzuetan nahiko ugaria da. Euskal Herrian ez da ohikoa.

Iberiar penintsulan bada genero bereko beste espezie bat, *Oxyura leucocephala* (ahate buruzuria). Itxuraz oso antzekoak dira biak, baina hemengo espeziea buruzuria da eta amerikarra burubeltza.

Aldameneko argazkietan *O. jamaicensis* inbaditzailea (goian) eta *O. leucocephala* bertakoa (behean).



### Taxonomia

- **Familia:** Anatidae (168 sp.)
- **Generoa:** Oxyura (6 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Anas jamaicensis*, *Anas rubidus* eta beste.

### Informazio osagarria:

- [https://eu.wikipedia.org/wiki/Ahate\\_herdoiltsu](https://eu.wikipedia.org/wiki/Ahate_herdoiltsu)
- <https://avibase.ca/DF1E2A1D>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

### Euskarazko izenak

Hegazti honek ez du tradiziozko izenik euskaraz. Ez da azaltzen ez [Euskalterm](#) datutegian eta ez [Elhuyar hiztegian](#) ere. Dena dela, 'ahate herdoiltsu' erabili izan du Aranzadi Zientzia Elkarteak eta Wikipedian ere halaxe agertzen da.

### Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Inguruko hizkuntzetako izenak aztertuta, badirudi bide ezberdinak jarraitu dituztela. Malvasía canela (ES), Ruddy Duck (EN), Malvasia de Jamaica (CA), Érisma rousse (FR), Schwarzkopfruderente (DE), Gobbo della Giamaica (IT) eta Rosse stekelstaart (ND).

Hori bai, munduan 6 espezie *Oxyura* daude eta inguruko hizkuntza gehienek generiko bat darabilte genero osoa izendatzeko (hau da, ez diete "ahate" deitzen; *Anas* generotik nahiko urruti daude, gainera). Horrela da, adibidez, gaztelaniaz, katalanez, frantsesez, nederlandera, italieraz eta alemanieraz. Ingelesa da espezie mailan hori egiten ez duen bakarra, baina kasu horretan ere badute [Stiff-tailed duck](#) izendapena *Oxyura* generoko kide guztiak izendatzeko.

Ingelesez bezala, alemanieraz eta nederlanderaz ere izen zientifikotik tiraka sortzen da izen generikoa: grezieratik dator, *oxus*, "zorrotza" + *oura*, "buztana". Buztanzorrotzak, alegia.

## Proposamena

Bi aukera aztertu ditugu:

1. **'Ahate herdoiltsu'**: Ez dauka tradizio luzerik, baina erabili izan da han-hemen. Desabantailak: izendapenak ez du ondo deskribatzen espezie hau eta genero bereko beste espezieak izendatzeko orduan ere ez da batere lagungarri. Izan ere, *Oxyura* generoko gainotzeko espezieak ere gorritzak dira, herdoil-kolorekoak; baita Iberiar penintsulan dugun ahate buruzuria ere.
2. **'Buztanzorrotz'** edo antzeko izenen bat sortu generiko gisa eta genero horren azpian Euskal Herrian ikus daitezkeen 2 espezieak berrizendatu: 'buztanzorrotz buruzuria' eta 'buztanzorrotz kaskabeltza' (edo beste izendapen batzuk, generoko 6 espezieak batera aztertuta). *Oxyura* guztientzat generiko arrunt bakar bat sortzeak bi abantaila ditu: 1) genero honetako kideak *Anas* generokoengandik ('ahateak') bereiztuko genituzke; 2) 'ahate herdoiltsua' baino izendapen espezifikagoa lortuko genuke. Hala ere, zailtasun bat ere badu, generikoa sortu beharra dagoelako (tradiziorik gabea) eta *Oxyura leucocephala* (ere) berrizendatzea eskatzen duelako.

Iruditzen zaigu epe ertainera bigarren aukera hobea dela, baina generoa (eta agian anatidoen familia osoa) bere osotasunean aztertu beharra eskatzen du eta une honetan prozesu gaitza eta nahasgarria izan daiteke. Dagoeneko badugu 'ahate herdoiltsu' izendapena eta, beraz, gera bedi, momentuz, bere horretan.

**Proposamena: *Oxyura jamaicensis*, ahate herdoiltsu.**

**Beste aukera batzuk:** (ahate) buztanzorrotz kaskabeltza (???)

# ***Sternula antillarum***

Ipar Amerikan bizi den txenada espezie txikia (22-24 cm), Eurasian dugun txenada txikiaren (*S. albifrons*) lehengusua.

Neurriz eta itxuraz oso-oso antzekoak dira bi espezieak. Garai batean espezie bakarraren azpiespezie bezala sailkatzen ziren. Batez ere deia dute ezberdina.

Espezie europarra nahiko arrunta da Euskal Herrian. Amerikarra behin baino ez da behatu gure kostaldean.



## **Taxonomia**

- **Familia:** Laridae (104 sp.)
- **Generoa:** Sterna (7 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Sternula albifrons antillarum*, *Sterna minuta*

## **Informazio osagarria:**

- [https://eu.wikipedia.org/wiki/Sternula\\_antillarum](https://eu.wikipedia.org/wiki/Sternula_antillarum)
- <https://avibase.ca/BE78E765>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

## **Euskarazko izenak**

[Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#) begiratu ditugu eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

## **Inguruko hizkuntzetako erreferentziak**

Charrancito americano (ES), Petite Sterne (FR), Least tern (EN), Xatrac menut americà (CA), Amerikanische Zwergseeschwalbe (DE), Amerikaanse dwergstern (NL), Fraticello americano (IT).

## **Proposamena**

Izen arrunta ezartzeko orduan Euskal Herrian ohiko den 'txenada txikia' izan behar dugu abiapuntu. Biderik errazena gardena da: Ameriketako espezieari kokapena zehazten duen izenondoa gehitzea. Ameriketako 5 *Sternula* espezie daudenez, 'txenada txiki amerikar' ez zaigu nahikoa zehatza iruditzen; hobe da , 'txenada txiki antillar'. Gainera, 'antillar' izenondoa izen zientifikotik ere hurbilago dago eta txorizaleentzat garbiagoa izan daiteke.

Oraingo azterketa honetan ez dugu landu, baina tentazioa izan dugu *Sternula* generoarentzat izen arrunt bakarra sortzeko ('txenadatxo', adibidez), *Sterna* eta *Thalasseus* generoetako beste txenada batzuetatik bereiztuko dituen (itxuraz arras ezberdinak dira). Laburragoa eta zehatzagoa litzateke, baina hausnarketa sakonagoa eskatzen du eta hurrengo baterako utzi dugu lanketa hori.

**Proposamena: *Sternula antillarum*, txenada txiki antillar.**

# Zuzentzaileen ekarpenak eta oharrak

Asier Sarasua Aranberrik landu du oinarrizko dokumentu hau. Ondoren, 10 txorizale euskaldunen artean banatu da: Aitor Galarza, Azaitz Unanue, Maite Laso, Gorka Gorospe, Martin Rezola, Aitor Leiza, Xabier Saralegi, Rafa Saiz eta Hector Gonzalez.

- Maite Lasok, Aitor Galarzak eta Gorka Gorospek ontzat eman dituzte izen guztiak.
- Hector Gonzalezek ontzat eman ditu *Leiothrix lutea* eta *Cairina moschata* (ez du oharririk egin beste izenen inguruan).
- Leizak, Rezolak eta Unanuek ere ontzat eman dituzte izen gehienak (6-8 espezie); zenbait ohar egin dituzte hiruzpalau espezieren kasuan eta dokumentu orokorrera eraman dira.
- Zalantza eta eztabaida nagusiak:
  - *Actitis macularius*: hasierako dokumentuan proposatutako 'nabar' espezifikatzailea ez zaie nahiko garbia iruditu hiru txorizalari (Unanue, Rezola eta Leiza) eta 'orbandun' hobetsi dugu txosten honetan (aurrerago beste aukera batzuk aztertzea baztertu gabe).
  - *Larus atricilla*: hainbat aukera aztertu dira eta gehienentzat egokiena den 'antxeta mokogorri amerikar' hobetsi dugu.
  - *Sula dactylatra*: Izenarekin ados gaude guztiok, baina zalantza linguistikoa daukagu, ea espezifikatzaile egokiena euskaraz zein izan ote daitekeen: maskaradun edo mozorrodun (maskaratu eta mozorrotu ez zaizkigu horrenbeste gustatu). Oraingoz, izen bat behar eta lehenengo aukera hobestea erabaki dugu (zanga maskaradun) eta, aurrerago, terminologian adituak direnekin gaia berraztertzea proposatu da.
  - *Oxyura jamaicensis*: genero osoarentzat balioko duen izen generiko baten premia nabarmendu dugu gehienok. Dena dela, izen generikoa aldatzea aurrerago ere egin daitekeela pentsatu dugu, kontuan izanik genero honetako espezieak ez direla batere ohikoak Euskal Herrian eta ez direla lehenetsun bat une honetan. Aurrerago aztertu daiteke gaia lasaiago eta sakonago.

Asier Sarasua (*Itsas Enara Elkarte Ornitologikoa*), Aitor Galarza (*Bizkaiko Foru Aldundia*), Azaitz Unanue (*Txepetxa Hegaztien Zientza-Eraztunketarako Elkarte*), Maite Laso (*Aranzadi Zientzia Elkarte*), Gorka Gorospe (*Mirua Actividades de Naturaleza*), Gorka Belamendia (*Salburuko Ataria Interpretazio Zentrua*), Juan Arizaga (*Aranzadi Zientzia Elkarte*), Txema Fernandez (*HAZI, Eusko Jaurlaritza*), Martin Rezola (*IVAP Euskal Institutua*), Aitor Leiza (*Itsas Enara Elkarte Ornitologikoa*), Xabier Saralegi (*Elhuyar Fundazioa*).

**Euskal Batzorde Ornitologikoa, 2022ko azaroan**